

UDALBATZA OSOA **Bilkura-akta**

Ohiko bilkura

Data: 2016ko azaroaren 9a, asteazkena

2016ko abenduaren 21an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), ez bertaratzeko arrazoiak eman ditu; Dolores Ruiz Zuazo (PP), ez bertaratzeko arrazoiak eman ditu, eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzen eta arazo publikoekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko urriaren 13an eginiko ohiko bilkuraren akta.
 2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
 - 3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
 - 3.1 Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzko mozioa (zuzenketa transakzionala).
 - 3.2 Hasiera batean onestea txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantza.
 - 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
 - 5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
 - 6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1 Behin-behinean onestea 2017 ekitaldiko ordenantza fiskal arautzaileen aldaketa.
 - 6.2 OHZ ordaintzetik salbuetsita egoteari buruzko Bilduren mozioa.
- Azken puntua) Eskerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2016ko urriaren 13an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrak egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrak egin.

Hau erabaki da:

1) Onestea 2016ko urriaren 13an eginiko bilkuraren akta.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2015eko 197/16tik 215/16ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

3.1 Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzko mozioa (zuzenketa transakzionala).

Alkate jaunak Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzko mozioa (zuzenketa transakzionala) irakurri du. Mozio hori EAJ-PNV eta Bildu Oion udal-taldeetako bozeramaileek sinatu dute. Gainerako talde politikoetako bozeramaileei informazio batzordearen saiora etortzeko gonbidapena luzatu zitzaien.

Gamarra López Brea jauna: PSE-EE-PSOE taldea abstenitu egingo da. Nik neuk uste dut edozein jardura babestu behar dela, eta ez dela inor baztertu behar.

Villanueva Gutiérrez jauna: ekimen onuragarria dela uste dugu; horregatik, babestu egingo dugu. Gure burua besteengandik bereizteko lehen urratsa da. Espero dugu JDB hau sortuko dela. Manuel Gamarra gonbidatzen dut alde bozkatzera, ekimenarekin ados badago. Beti agintzen diotena ez egitera gonbidatzen dut.

Campos jauna: zerbait ondo dabilenean, ez da komeni aldatzea. Ez dakigu ziur mundu guztia ados dagoen. Arabako Errioxa azpideiturarekin ados egon gaitezke. Aurka bozkatuko dugu.

Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzko mozioa (zuzenketa transakzionala) bozkatu dute.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV),

Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Kontrako botoak: 1 (bat): Luis Felipe Campos Latre (PP).

Abstentzioak: 1 (bat: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE)).

Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzko mozioa (zuzenketa transakzionala) onetsi egin dute. Onetsitako mozioaren testua erantsi da:

Beherago sinatzen duten udal-taldeen zuzenketa transakzional hau aurkeztu dute EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioari. Mozioak aipatzen du ezinbestekoa dela erakundeek Arabako Errioxako hainbat upategik sortutako ekimena babestea, Arabako Mahastiak / Viñedos de Álava JDBa martxan jartzeko.

Zuzenketa transakzionala

1. Oioneko Udalak babestu egiten du Arabako Errioxako 40 upategik baino gehiagok hartutako erabakia, Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava Jatorri Deitura Babestua sortzekoa. Udalak ulertzen du modu horretan Arabako mahatsaren eta ardoaren sektorearen etorkizuna bermatuko duen eredu propio bat sustatu ahal izango dela; historikoki, sektore hori lurraldeari loturiko upategi txiki eta ertainek osatzen dute, eta kalitate bikaineko produktua ekoizten dute.

2. Oioneko Udalak Foru Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die upategi horiek hartutako bidea babes dezatela, bakoitzak dituen eskumenen esparruan, eta eskura dituzten giza eta lege-bitarteko guztiak erabil ditzatela marka hori ahalik eta azkarren egia bihurtzeko.

3. Oioneko Udalak Ardoaren Mahaia sustatzeko eskatzen du, deitura berri hori behar bezala garatu ahal izateko. Mahai hori inplikaturako upategietako, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak osatuko dute, eta xede izango du beharrezko ahalegin tekniko zein legalak koordinatzea.

4. Oioneko Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die lanean jarrai dezatela Errioxako Jatorri Deitura izaten jarraitu nahi duten upategiek deitura propio eta berezia, Arabako Errioxa deitura, hain zuzen ere, lortu ahal izan dezaten; deitura horrek gure eskualdeko berezitasun geografiko, topografiko, paisajistiko eta agronomikoei erantzuten die.

5. Oioneko Udalak Foru Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Arabako Errioxako ardogileak eta upategiak defenda ditzatela, erabakitzen dutena erabakitzen dutela, betiere lehentasuna emanaz kalitatea, bereizketa, Arabako Errioxako ekoizpen-eredu berezia, eta iraunkortasun ekonomikoa, soziala, zein ingurumenaren iraunkortasuna defendatzeari.

Alkate jauna: helburua ez da inor baztertea. Ekoizleen ekimen bat da. Gu ez gaude Errioxako JDBaren aurka, baizik eta baztertzaila ez den ekimen baten alde. Gure ustez posible da; izan ere, une honetan gure lurraldean bi jatorri-deitura daude: Errioxa eta Cava. Helburua da beste ate bat zabaltzea eta, horregatik, alde bozkatu dugu.

3.2 Hasiera batean onestea txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantza.

Alkate jauna: Txosnen ordenantzaren berri eman du:

Gamarra jauna: ados.

Villanueva jauna: ondo dago gauzak arautzea, testua aldatzeko aukera dago.

Campos jauna: ados.

Aurrekariak:

1) EUDELEk proposatutako agiria inspirazio-iturri duen ordenantza arautzailea, txosnen esleipenari eta funtzionamenduari buruzkoa.

2) Espedientearen erreferentzia: OrdTxosnas20161109

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea zaindariaren jaiak eta bestelako ospakizunak direla eta udalerrian jarriko diren txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.
2. Ordenantza hori jendaurrean jartzea 30 (hogeita hamar) egunez; hala, iragarkia jarriko da Udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn. Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek udal-bulegoetan eskuragarri dagoen espedientea aztertu ahaliko dute, eta egoki deritzen erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahaliko dituzte. Erreklamaziorik jartzen ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko erabaki bilakatuko da. Erreferentzia: Bo161112B.
3. Herritarren elkarteei eta tabernen titularrei banan-banan emango zaie horren berri.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.

6.1 Behin-behinean onestea 2017 ekitaldiko ordenantza fiskal arautzaileen aldaketa.

Gamarra jauna: ondo deritzot; nire ustez, gorakadaren ondoriozko zenbatekoak ez dira gehiegizkoak.

Villanueva jauna: aurreko Udalbatzak axolagabekeriaz jokatu zuen eta ez zituen tasak eguneratu; badirudi hori botoak irabazteko baino ez zutela egin. Gobernu-taldeak igerilekuei dagokienez egindako proposamena gehiegizkoa zen, % 40 gorakada zetorrelako. Soldatek eta pentsioek, berriz, % leko gorakada izan dute. Eztabaidatu den proposamena da % 10etik gorako igoera aplikatzea udalerrian erroldatuta ez daudenei. Halaber, HHSak biltzeak ekarriko duen gorakada ere ordaindu beharko dugu. Tasa eguneratu behar dugu, aurreko legealdian egindako akatsa ez errepikatzeke.

Campos jauna: ados eguneko erabiltzaileak zigortzeari. Hala ere, ez gaude ados erroldatuta ez dauden abonatuak zigortzearekin. Igerilekuek defizita dute; jende gehiago etortzea behar dugu.

Erroldatuta ez dauden baina hainbat urtez igerilekuak udalerriko biztanleekin partekatu dituzten erabiltzaileen leialtasuna zigortzea da.

Alkate jauna: arazoa jaiegunetan izaten diren bertaratze-gorakadak dira...Alderatu egin ditugu El Cortijoko eta Oioneko igerilekuak (Oionen, 35 euro; El Cortijon, berriz, 65 euro), eta bereizketa are handiagoa da. Oionen gune berdeak zabaldu dira, baina ez igerilekuak. Dena den, Oioneko aldaketa eguneko 40 zentimokoa baino ez da.

Villanueva jauna: berdin digu zenbat balio duten igerilekuek El Cortijon edo beste edonon. Berriztatze- edo konponketa-lanak egiteak esan nahi du udal-baliabideak horretan erabiltzea, eta ez beste gauza batzuetan. PP alderdiak tasak duela lau urte eguneratu balitu, egun ez genuke arazo hau izango.

Aurrekariak:

1. 2017 ekitaldiko ordenantza fiskal arautzaileen aldaketari buruzko espedientea, udalerriko bideetan eta mendi-bideetan mantentze-, hobetze- eta kontserbatze-lanak egiteko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa ezartzen eta arautzen duena.
2. Toki-ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikulua eta 44/1989 Foru Araua aplikatu behar dira.
3. Proposamena Ekonomia eta Ogasuna Informazio Batzordeak 2012ko azaroaren 7an egindako saioan aurkeztu zen.

Hau erabaki da:

- 1) Hasiera batean onestea adierazitako tasak eta zergak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzea. Gainerako ordenantza fiskalen iraupena luzatzea.
- 2) Hori jendaurrean jartzea, toki-ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluek eta 44/1989 Foru Arauak ezarritako moduan eta epeetan.
- 3) Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean. Behin betiko onespenez erabakia jendaurrean jartzea, arauak ezarritako moduan eta epean.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 1 (bat); Luis Felipe Campos Latre (PP).

Campos jauna: abstenitu egin da ez dagoelako ados igerilekuen tasan egindako igoerarekin, eman dituen arrazoiak direla eta. Gainerakoarekin ados dago.

6.2 Bilduren mozioa, OHZ ordaintzetik salbuetsita egoteari buruzkoa

Villanueva jauna: Mozioa joan den urtean aurkeztutakoaren antzekoa da. Ordainagiriaren titularrari dagokio hobaria jasotzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea. Edonola ere, zerga ordaindu behar da, eta gero itzuliko zaio dagokion zatia. Hobarien taula azken urte hauetan proposatu izan duguna da.

Gamarra jauna: ados gaude OHZren kuota murriztearekin, horrek ez baditu diru-kutxak kaltetzen.

Campos jauna: Oioneko zerga-tasa txikiena da...

Alkate jauna: Agurainen 0,35eko tasa aplikatzen da, eta Oionen, berriz, 0,15ekoa. Oionen finkatutako tasa katastroa berrikusi zenetik aplikatzen da. Egoera ez da aldatu aurreko ekitaldiari dagokionez.

Bozkatu egin da Bilduren mozioa, OHZren salbuespenari buruzkoa.

Aldeko botoak: 3 (hiru): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Luis Felipe Campos Latre (PP).

Aurkako botoak: 5 (bost): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Ez da mozioa onetsi.

Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Gamarra jauna: ahalegin guztiak egin behar dira hilerri zaharreko hondar guztiak berrira eramateko.

Alkate jauna: urratsak ematen ari gara. Eusko Jaurlaritzako osasun publikoko zuzendaritzak bertan behera utzi ditu Oioneko hilerri zaharreko ehorketak; hilerria Eras de Abajo kalea, z.g. helbidean dago.

Villanueva jaunak galdera hauek egin ditu:

1) Bilduk eskatu zuen liburutegira Gara egunkaria ekartzeko. Proposamena onetsi zen, baina Berria kendu da. Guk proposatzen duguna da Gara ekartzea, baina Berria ekartzeari ez uztea. Are gehiago, ulertzen dugu liburutegian La Rioja eta Noticias de Álava egunkariak ere egotea.

2) Erregistro Zibileko bulegoan zinegotzi bat ari da lanean. Bateragarria ote zen galdetu genuen aurrekoan; gure ustez, bateraezina da, argi eta garbi.

3) Noiz jarriko da martxan Enplegu eta Prestakuntza Plana? Nork kudeatuko du?

4) Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna da, eta ez dugu horri buruz hitz egin ez batzordeetan ez osoko bilkuran. Abenduaren 3an Euskararen Eguna da, eta horren inguruko adierazpenik ere ez dugu egin.

5) Azken hilabeteotan, PP taldeko kideek, Luis Felipe Camposek izan ezik, bilkuretara etortzeari utzi diote. Gure proposamena da bilkuretara etortzen ez diren taldeei diru-saria kentzea...

Alkate jauna: ez dira inoiz liburutegirako 4 egunkari baino gehiago erosi, eta proposamen horretan ulertu genuen ez zela eskatzen Berria mantentzerik.

Gamarra jauna bilkuratik atera da.

Campos jauna: prentsan albiste bat agertu da, esanez Oioneko isuriak Cubillas putzuaren ingurura iritsi direla.

Alkate jauna: herenegun obraren moldaketa sinatu zen. Egia da denbora luzea hartu duela horrek. Jarduketa horren bitartez, gure udalerriko hiriko zein industriako (mahastietako) isuriak tratatu ahal izango ditugu, eta tratatutako hondakin-urak uretako ingurunearen beharrekin guztiz bateragarriak diren isurietan bukatzea ahalbidetuko du. Obra horien aurrekontua 3,5 milioi euro baino zertxobait gehiagokoa da, eta exekutatzeko epea, berriz, 16 hilabetekoa. URA agentziak azaldu duenez, lan horiek azken urteetan egindako saneamendu-lanen jarraipena dira, hala Oioneko hirigunean nola industrialdean (bilgailu-sistema eraikitzea eta nukleoak isuriak sortzen dituzten jarduerekin lotzea; horretarako, 3 milioi euro baino gehiago inbertitu ziren). Obrek gaur egungo Oioneko hondakin-urak arazteko estazioa handitzeko eta modernizatzeko jarduketak aurreikusten dituzte. Lan horien bitartez, egokitu edo berriztatu egingo dira egungo estazioko instalazioak (ponpaketa putzuak, hoditeria, argindar-instalazioak, bideak, kontrol-eraikina...) eta instalazio berriak egingo dira (ekaitzen tankea, Faustino upategietako bilgailuaren ponpaketa, errektore biologiko berria, lohia lehertzeko prentsa, usainak kentzeko instalazioak eta abar). Oioneko estazioa egokitzea, bilgailuen sarea hedatzea eta lehen ingurunera behar bezalako tratamendurik jaso gabe isurtzen ziren urak ere tratatzea ezinbesteko urratsak dira errekararen egoera hobetzeko.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:29an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oionen, 2016ko azaroaren 23an

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa SL